

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat eraikitzeko, ezinbestekoa da enpatia, aniztasuna eta osasun mentala bezalako balioak sustatzea arlo guztietan, bai pertsonen arteko harremanetan, bai erakunde eta komunitateen funtzionamenduan. Balio horiek eguneroko praktikan txertatzeak aukera ematen du pertsona guztiek beren potentziala garatzeko, diskriminazioari aurre egiteko eta elkarbizitza osasuntsuagoa eraikitzeko.

Helburu horrekin, gure proiektuak hainbat ekintza eta baliabide garatuko ditu, ikuspegi integral batetik. Ekintza horien bidez, komunitate osoaren parte-hartzea sustatu nahi dugu, guztion artean gizarte inklusiboago eta bidezkoago bat eraikitzeko bidean aurrera egiteko. Proiektuak ez du soilik arazoei aurre egin nahi; aldaketa kulturala eta soziala bultzatu nahi du, errespetuan, elkartasunean eta zaintzan oinarritutako etorkizun baterantz. Beraz, ondorengoak dira gure proiektuaren funtsezko jarduerak:

- a. **Hezkuntza-tailerrak eta prestakuntza saioak.** Enpatia eta aniztasuna inguruko hezkuntza-tailerrak antolatu nahi ditugu ikastetxeetan, unibertsitateetan, enpresetan eta baita ospitaleetan ere, eremu bakoitzaren behar eta errealitateetara egokituta. Helburua da parte-hartzaileei tresna praktikoak eskaintzea, bai norberaren ongizatea lantzeko, bai inguruko pertsonen egoerak hobeto ulertzeko eta errespetuzko harremanak eraikitzeko.

Tailer hauetan, gaitasun sozial eta emozionalak garatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek. Horien artean egongo dira emozioen kudeaketa eraginkorra, gatazken konponbide osasuntsuak, elkartasuna eta enpatia sustatzeko teknikak, eta estigma sozialak identifikatu eta haiei aurre egiteko estrategiak. Saioak dinamikoak izango dira (eguneroko egoeren simulazioak erabiliz), parte-hartzaileek ez dute soilik entzun behar, baizik eta esperimendu eta hausnartzeko aukera izango dute, desgaitasuna duten pertsonen esperientziak partekatuko direlarik.



Irudia 1.*

- b. **Aholkularitza.** Eragile ekonomiko ezberdinei aholkularitza zerbitzu espezializatua eskainiko diegu, inklusioaren arloan dituzten erronkei modu eraginkorrean erantzuteko. Zerbitzu honen bidez, erakundeei lagunduko diegu beraien inklusio planak diseinatu, garatu eta ezartzeko prozesu osoan, ikuspegi estrategiko eta praktikoa uztartuz. Helburua da enpresek eta erakundeek ingurune



bidezkoagoak, irisgarriagoak eta pertsona guztientzat egokiak sortzea, bai barne-antolaketan, bai bezeroei edo erabiltzaileei eskaintzen dieten arretan.

Gainera, gure aholkularitza zerbitzua formatu bikoitzean eskaintzen da: digitala eta presentziala. Modalitate digitalak malgutasun handiagoa ematen du, eragile ekonomikoek beren erronkei eta beharrei erantzuteko online saio pertsonalizatuak jasotzeko aukera dutelarik, bideokonferentzien bidez. Aldi berean, presentzialki ere lan egiten dugu, espazioen irisgarritasuna aztertuz eta talde-lan saioak dinamizatuz. Bi formatuak uztartzeak aukera ematen du prozesu osoa eraginkorragoa, eskuragarriagoa eta erakunde bakoitzaren errealitatera egokituagoa izateko.

- c. **Hitzaldiak, jardunaldiak eta sentsibilizazio-kanpainak.** Desgaitasuna duten pertsonen eta arloko profesionalen testigantzak jasotzen dituzten hitzaldiak eta jardunaldiak antolatuko ditugu. Konferentziak eta sentsibilizazio-kanpainak garatu egingo ditugu desgaitasunaren ikusgarritasuna sustatuz. Helburua da gizartearen sentsibilizazioa handitzea eta estereotipoak apurtzea. Hau guztia esperientzia pertsonalen bidez egingo dugu.
 - d. **Material didaktiko egokituak.** Pertsona guztientzat irisgarriak eta inklusiboak diren material pedagogikoak sortu nahi ditugu, informazioa modu ulergarrian eta eskuragarrian zabaltea helburu nagusitzat hartuta. Horretarako, Komunikazio Sistema Handigarri eta Ordezkoetan (KSHO) oinarritutako baliabideak garatuko ditugu, komunikazioa errazteko eta edukiak pertsona bakoitzaren beharretara egokitzeko. KSHOren barruan, piktogramak, argazkiak, irudi sinbolikoak, testu erraztuak eta gida bisualak sortuko ditugu, bai hezkuntza-testuinguruetan, bai gizarte- eta lan-eremuetan erabilgarriak izan daitezen.
 - e. **Tokiko elkarteekin lankidetzat.** Tokiko elkarte, udaletxe eta enpresekin elkarlanean aritzea funtsezkoa izango da gure proiektuaren arrakastarako, eta horregatik aliantza sendoak eraikitzea eta mantentzea izango dugu helburu. Lankidetzat horien bidez, jarduerak eta ekimenak elkarrekin diseinatuko ditugu, komunitatearen benetako beharrei erantzuteko eta ikuspegi anitzak integratzeko. Eragile bakoitzak bere ezagutza, esperientzia eta baliabideak ekarriko ditu, eta horrek proiektuak aberastu eta inpaktu handiagoa izatea ahalbidetuko du.
- Aliantza horiek ez dira soilik laguntza puntualak izango; sare sendo eta iraunkorrak sortzea bilatuko dugu, denboran zehar proiektu berriak modu parte-hartzailean garatzeko. Lankidetzat horien barruan, hainbat jarduerak garatu ahal izango dira: sentsibilizazio kanpainak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, erakusketa tematikoak, antzerki inklusiboa edo komunitateari zuzendutako tailerrak, besteak beste. Ekintza hauek guztiek helburu bera izango dute: aniztasuna, inklusioa eta gizarte bidezkoago bat sustatzea, eragile guztien artean sare sendo eta eraginkor bat eraikiz.
- f. **Jarduera fisikoa edota aisialdi inklusiboa.** Jarduera fisikoa eta mugimendua sustatzen dituzten ekintzak antolatzea, hala nola: kirol egokituaren erakuspenak, dantza saioak eta esku-trebetasuna lantzen duten jokoak edo eskulanak. Ekintza hauek inklusiboak izango dira, adin eta gaitasun

guztietako pertsonentzat egokituak. Gorputzaren adierazpena eta mugimenduaren bidez, autoestimua, talde-lana eta ongizate fisikoa eta emozionala indartuko dira. Era berean, talde lana, elkarlana eta elkarrekiko errespetua sustatzen dira, partehartzaileek elkarrekin esperientzia positiboak partekatzen dituztenean.

- g. **Atsedena zerbitzua.** Gure jardueren bidez, zaintza-beharrak dituzten pertsonentzako espazio seguru, egituratu eta inklusiboak eskaintzen ditugu, eta horri esker, haien familiek atsedena hartu, denbora pertsonala berreskuratu edo eguneroko gestioak lasai egiteko aukera dute. Ekintza hauek (tailerrak, aisialdi inklusiboa, jarduera fisiko egokituak edo sormen-dinamikak) profesionalen laguntzarekin garatzen dira, parte-hartzaileek arreta egokia eta ingurune babestua izan dezaten. Horrela, familiek konfiantzaz utz dezakete euren senidea, jakinda ongi zainduta eta aktiboki parte hartzen ari dela. Zerbitzu hau ez da soilik zaintza puntual bat; familiei arnasa emateko tresna eraginkorra da, zaintza-kargak arintzen laguntzen duena eta ongizate emozionala zein fisikoa zaintzen laguntzen duena.

Zerbitzu hau osatzeko, “Start Pack” izeneko pack bereziak eskainiko ditugu, zaintza-egoeran dauden familiei lehen orientazioa eta oinarritzko baliabideak emateko. Helburua da familiek hasieratik laguntza argia eta erabilgarria izatea, egoera berrira egokitzeko prozesua errazteko. Zerbitzu honek ordutegi malguak izango ditu, beti ere familien eskaerei egokituak. Ordu solteak kontratatatu daitezke edo ordu paketea, jardunaldi erdikoa, osokoa, egunez edo gabez. Era berean, familiei laguntza eta koordinazioa funtsezko ardatza izango da. Orientazio pertsonalizatua eskainiko diegu, emozio-kudeaketarako tresnak, informazio praktikoa eta eguneroko erronkei aurre egiteko estrategiak barne.

- h. **Marketin eta komunikazioa.** Horrez gain, webgune inklusibo eta irisgarri bat mantentzeko konpromisoa hartzen dugu, eduki digitalak formatu egokituetan eskainiz eta nabigazioa erraztuz. Webguneak kontraste egokia, testu alternatiboak, irakurketa erraztua eta gailu guztietara egokitutako diseinua izango ditu, erabiltzaile orok informazioa modu autonomoan eskuratu ahal izan dezan. Eduki digitalak etengabe eguneratuko ditugu, baliabide berriak gehituz eta erabiltzaileen beharrei erantzunez. Era berean, sare sozialetan (Facebook, TikTok, Whatsapp Business eta Instagram) presentzia aktiboa izango dugu, eduki inklusiboak, azalpen bisualak, bideo laburrak eta informazio praktikoa partekatuz. Plataforma horiek aukera emango digute mezuak publiko zabal eta anitz batera heltzeko, eta komunitatearekin harreman dinamiko eta hurbila mantentzeko.

Azkenik, gure jardueren eraginkortasuna eta inpaktua neurtzeko, KPlen jarraipen sistematikoa egingo dugu. Bisiten kopurua, kontratazio-tasak, erabiltzaileen eta familien gogobetetasuna edo sare sozialen inplikazioa bezalako adierazleak aztertuko ditugu, gure helburuak bete diren ala ez ebaluatzeko.



ITURRIAK:

- Microsoft Copilot. (2026). Logotipo generado por inteligencia artificial para “Erratzu S.Coop.” [Imagen generada por IA].

IRUDIAK:

- Irudia. 1:
https://encrypted-tbn0.gstatic.com/images?q=tbn:ANd9GcTfBXZ_2US_tR0m7f79V3Z-wvB C6J5UPpkjKA&s